

EUREKAREN FUNTZIONAMENDUA –2021-22ko ASTRONOMIA IKASTAROAK

Aurten, Covid-19aren ezusteko etorreraren eraginez egoera berezia bizitzen ari garen honetan, haurren beharretara eta inguruabar berrietara egokitu ditugu gure astronomia ikastaroak.

Horretarako, jarraian aurkezten dizuegun protokoloa prestatu dugu, ahal den heinean tailer astronomia ikastaroetako parte-hartzaileen, begiraleen eta museoko langileen segurtasuna babesteko eta Covid-19a kutsatzea saihesteko. Protokolo honen edukia zuen langileei helaraz diezaiezuela eskatzen dizuegu.

Halaber, gogorarazten dizuegu, unean uneko inguruabarren arabera eta osasun-arloko agintariek eman ditzaketen aginduei jarraiki, aldatu egin litezkeela neurri hauek.

Elkargunea – Asteartetan 17:15etan eta larunbatetan 11:00etan

- Familiek lagunduko diete haurrei Eureka! Zientzia Museoko sarrera nagusiraino, Einsteinen eskultura dagoen ondoan; han, ilararen posizioa mugatzen duten markak ikusiko dituzte lurrean. Haurrak entregatzeko eta jasotzeko eremua behar bezala seinaleztatuta egongo da, eta txandaka entregatu eta jasoko dituzte haurrak gurasoek. Senitartekoek zein hurrek musukoak jantzita izan behar dituzte, eta uneoro jarraitu jardueraren koordinatzailearen eta begiraleen jarraibideak.
- Jarraian, banan-banan sartuko dira haurrak, koordinatzaileak adierazi ahala, eskuak gel hidroalkoholikoz garbitu, eta gainerako taldekideei itxoingo diete begiralearekin batera horretarako gaitutako zonan; ondoren, taldetan joango dira ikasgeletara.

Museoko langileek eta Aranzadiko langileek maskara izango dute uneoro, eta adingabeek ere maskara eraman beharko dute, adina edozein dela ere.

Parte-hartzaileak eta, hala badagokio, haiekin joango den arduraduna kanpoan itxarongo dute, adierazitako marketan, segurtasun-distantzia mugatzeko.

Talde bakoitzak kolore bat izango du. Eta Hallean kolorez mugatutako guneak egongo dira talde bakoitzarentzat.

Nola jokatu behar dugu taldean?

- Taldeek agintari eskudunek ezarritako muga bat izango dute gutxienez eta gehienez, betiere espazio bakoitzaren ezaugarriak eta talde bakoitzaren espezifikotasuna kontuan hartuta. Gutxieneko parte-hartzaile kopurua ez badago, antolakundeak ikastaroak baliogabetzeko ahalmena izango du, baina, nolana ere, talde bakoitzeko parte-hartzaile kopurua egokitzen saiatuko da, ahal den neurrian, ikastaroen baliogabetzea saihesteko. Beste urte batzuetan ez bezala, taldeek ez dute elkarren artean harremanik izango; aurrerago azalduko dugun bezala, taldearentzako berriaz definitutako begiralea izango du talde bakoitzak, eta jardueretarako espazio jakin bat.
- Taldeek ez dute elkarren artean harremanik izango, eta bakoitzak, aurrerago azalduko dugun bezala, begirale bat izango du, taldearentzat bakarrik definitua, eta jarduerak garatzeko espazio finko bat.
- Taldeak parte-hartzaileen jarduera-motaren eta/edo adinaren arabera osatuko dira, eta indarreko araudiak ezarritako gehieneko parte-hartzaile kopurua + begirale 1 izango dute.
- AstroLAGUN – Astronomia ikastaroetako taldeak adina kontuan hartuta prestatuko dira.

- Talde bakoitzak bere begiralea izango du, eta begirale bera izango da egun eta jarduera guztietarako, oso ezohiko kasuetan izan ezik; kasu horietan, ordezeko bat izendatuko da. Halaber, talde bakoitzak ez du harremanik izango gainerako taldeekin.
- Begiraleen lan eta jarduera guztiak koordinatuko dituen arduradun bat egongo da; gainera, COVID-19agatik segurtasuna, higiena eta osasuna babesteko neurri eta protokolo guztiak betetzen direla zaindu beharko du.

Nola identifikatuko ditugu taldeak?

- Kolore bidez identifikatuko dira taldeak, eta ez dute inoiz elkarren artean kontakturik izango.
- Haurrak uzteko eta jasotzeko zona bat izango du ezarrita museo barruan talde bakoitzak, dagokion kolorearekin identifikatuta. Era horretan, jendea pilotzea eta taldeek elkarren artean kontaktua izatea saihestuko dugu.
- Halaber, tailerrak egingo diren ikasgelak eta espazioak talde bakoitzari dagokion kolorearekin identifikatuta egongo dira, baita hamaiketakoa egiteko talde bakoitzari dagokion kanpoko zona eta talde bakoitzeko kideek jateko erabiliko duten jantokiko mahaia ere.
- Parte-hartzaileek behar bezala identifikatuta ekarri beharko dituzte etxetik beraien motxilak eta berokiak.
- Anai-arrebak edo elkarrekin bizi diren haurrak etortzen badira, bakoitzak bere motxila eta gauza pertsonalak ekarri beharko ditu. Ezingo dituzte gauzak partekatu, taldeek ez baitute beraien artean harremanik izango; talde bakoitzak modu independentean funtzionatuko du maila guztietan.
- Haur guztiek beren musukoa ekarri beharko dute (musukoa gordetzeko poltsa edo zorrotxo bat ere bai), eta ordezeko beste bat; baita norberak erabiltzeko gel hidroalkoholikoa eta paperezko zapiak ere motxilan.
- Motxilan gordeko dituzte zirak, jertseak, etab.
- Haur bakoitzak bere ura eta hamaiketakoa ekarri behar ditu, eta inola ere ezingo dute beste inorekin elkarbanatu.
- Txanda batean egingo da hamaiketarako etenaldia, eta talde bakoitzak bere zona izango du museo kanpoan, gainerako taldeen zonetatik aldentuta. Era horretan, jendea pilotzea eta taldeek elkarren artean kontaktua izatea saihestuko dugu. Halaber, zona horiek garbitu egingo dira txanda batetik bestera. Eguraldiak ez badu kanpora irteteko aukerarik ematen, ikasgelan bertan egingo dute hurrek hamaiketakoa.
- Saihestu egingo da etxetik materialak eta jostailuak ekartzea, aurreko puntuetan aipatutakoak izan ezik.
- Halaber, motxilak modu ordenatuan (pilotu gabe) eta umeek erraz identifikatzeko moduan gordetzeko berariazko zona bat izango du espazio bakoitzak.

Parte-hartzaileen irteera – Asteartetan 18:45etan eta larunbatetan 12:30etan

- Ikasgelatik atera aurretik, eskuak hidroalkoholarekin garbituko dira beti.
- Arduradunek museoaren kanpoaldean itxoin beharko dute, eta banan-banan entregatuko dira parte-hartzaileak.

- NAN agiria erakutsi beharko du arduradunak, eta haurra jasotzeko baimena ba ote duen egiaztatuko dugu zerrendan.
- Parte-hartzaileraren baten arduraduna bertaratu ez bada, museoko Hallean itxarongo du, kolorez/taldez mugatutako gunean. Bertan, museoko langileak egongo dira une oro laguntzaile gisa.

Nolakoak izango dira gure jarduerak?

- Berrantolatu egin ditugu jarduerak; horrela, fisikoki isolatutako taldetan egingo ditugu, talde bakoitzak bere begiralearen zaintzapean. Familia-unitate bat bailitzan jardungo du talde bakoitzak.
- Gaur egungo egoera dela eta, ahal den heinean segurtasun-tarteak errespetatuko dira talde bakoitzaren barruan, eta saihestu egingo dira kontaktu estu eta jarraituko jarduerak.
- Talde bakoitzerako lan-material berezia erabiliko da, eta margoak, arkatzak, ordenagailuak eta gainerako elementuak elkarbanatzea saihestuko da edo, taldeen artean elkarbanatu beharra baldin badago, arreta handiz garbitu eta desinfektatuko dira elementu horiek, erabiltzen diren aldiro.
- Espazio itxietan egingo diren jardueretarako, talde bakoitzak bere zona izango du, eta ez du beste talde batzuekin elkarbanatuko. Nahiko handiak dira jardueretarako espazio itxiak, eta behar bezala aireztatuta egongo dira.

Nola indartuko ditugu higiene- eta prebentzio-neurriak?

- Berriazko seinaleak, mezuak eta kartelak jarri ditugu, nola jokatu, segurtasun-tarteak, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotu ditugu, laneko higieanean eta osasunean eskumenak dituzten agintarien gomendioetan oinarrituta.
- Begiraleek COVID-19a prebenitzeko berriazko prestakuntza jaso dute, eta uneoro azalduko diete taldekideei espazio itxietan zein aire zabalean jarraitu behar dituzten neurriak.
- Halaber, begiraleak zaindu beharko du haurrek maiz garbitzen dituztela eskuak. Horretarako, gel hidroalkoholiko ekologikoak, paperezko zapiak eta erabilitako materiala suntsitzeko berriazko ontziak jarri ditugu, hainbat leku estrategikotan, hala nola harreran, hainbat espaziotarako sarreretan, ikasgeletan...

Astronomia ikastaroetara joan aurretik, etxean egunero hartu beharreko segurtasun-neurriak

- Jarduerara joan aurretik, tenperatura neurtu beharko zaio haurrari etxean; halaber, egiaztatu beharko da parte-hartzaileak ez duela inolako sintomarik.
- 37 gradu edo gehiago baldin badu, 10 minutu itxoin eta berriro hartu behar zaio tenperatura, eta beste behin 5 minutu igaro ondoren. Behin eta berriz ematen badu 37 gradu baino gehiagoko tenperatura, haurra ezingo da tailerrera joan, eta dagokion osasun-etxera deitu beharko dute gurasoek, zer egin behar duten esan diezaieten.
- Etxetik irten baino lehen, gainera, eskuak garbitu behar dituzte protokoloan adierazten den bezala –hots, urez eta xaboiz– eta modu arretatsuan eta behar beste denbora eskainita.

- Lasai egon daitezten, hurrei esan behar zaie uneoro izango dutela begiralearen edo begiraleen laguntza edozer gauzetarako eta, batez ere, gaizki sentitzen direnean; kasu horretan, begiraleari esan behar diotela azaldu behar zaie.

Zer egin sintomaren bat agertzen bada?

- Umeak COVID-19arekin lotutako sintomaren bat baldin badu (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoeza...), edo COVID-19 birusak kutsatutako norbaitekin kontaktuan egon baldin bada, ezingo da astronomia ikastarora joan. Familiak bere osasun-etxera deitu behar du, eta dagozkion jarraibideak emango dizkiote han; aldi berean, astronomia ikastaroko arduradunarekin harremanetan jarri behar du egoeraren berri emateko, erreserbak@eurekamuseoa.eus helbide elektronikora idatzita edo **943 012 478** telefono-zenbakira deituta.
- Haurrari harrera egiteko unean, hura osasunez nola dagoen galdetuko diete astronomia ikastaroko arduradunek eta begiraleek gurasoei. Halaber, goizean zehar tenperatura hartuko zaio sintomasuoa duen umeari.
- COVID-19 gaitzarekin lotutako sintomak dituen susmoa baldin badago (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, ondoeza...), familiari deituko zaio, umearen bila etor daitezten. Era berean, familia bere osasun-etxearekin harremanetan jarriko da, eta han baloratuko dute egoera eta uneoro emango diete informazioa erakundeari. Familia iristen den arte, umea taldearengandik aldentuta egongo da, begirale laguntzaile batekin.

Zer egin COVID-19 kasu positibo bat baieztatuz gero?

- Parte-hartzailea COVID-19 birusa diagnostikatu dioten norbaitekin kontaktuan egon baldin bada, gurasoek edo tutoreek horren berri eman behar diete astronomia ikastaroko antolatzaileei eta osasun-erakundeei, eta umeak etxean geratu beharko du.
- Astronomia ikastaroko langileren batek edo haurren batek COVID-19 birusa duela baieztatuko balitz, astronomia ikastaroko arduradunek telefono-arretako zerbitzuari edo hitzarturako osasun-etxeari emango diote horren berri, jarraibideak jasotzeko. Emandako jarraibideak beteko dira eta modu koordinatuan jardungo da eta, halaber, egoeraren berri emango zaie taldeko haurren familiei edo legezko ordezkarierei ere. Osasun-etxeak hala aginduko balu, bertan behera gera litezke taldearen jarduerak, eta berrogeialdia egin beharko lukete haurrek zein begiraleak. Sakon desinfektatuko dira taldeak erabiltzen dituen espazio itxiak zein materiala.
- Arreta bereziz zainduko da infektatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, horretarako sortutako protokolei jarraituz, eta datuen babesari buruz indarrean dagoen legeria errespetatuz.
- COVID-19 kasu bategatik jarduera bertan behera geratuko balitz, jardueraren egin ez den zatiaren diru-kopuru proportzionala itzuliko zaio parte-hartzaile bakoitzari.
- Osasun-agintariek emandako jarraibideak kontuan hartuta, baliteke txanda osoaren jarduera bertan behera utzi behar izatea. Kasu horretan, astronomia ikastaroko-programak erabilitako gela eta material guztiak desinfektatuko lirateke.
- Kutxagestion Zerbitzuak SLU sozietateak protokoloak eta neurriak zorrotz errespetatuta ere, Covid-19 kasuren bat gertatuko balitz, familiek ezin izango diote batere kalte-ordainik erreklamatu Kutxagestion Zerbitzuak SLU sozietateari.

OHARRA: astronomia ikastaroko parte-hartzaileen eta, zeharka, haien familien segurtasunerako landu dugu protokolo hau; horregatik, parte-hartzailearen batek edo haren laguntzailearen batek behin eta berriz urratzen baditu ezarritako protokoloak, astronomia ikastaroetan jarraitzea eragozteko eskubidea izango dute antolatzaileek, eta ez diete izen-ematearen dirurik itzuli beharko.